

# Topalekua

80 zk. 2013ko maiatza

mayo 2013 - n.º 80

**1. eta 4. orr.:** *Gizarte kontseiluaren osoko bilkurak ikasketa osagarrien 8 ikastaroren matrikula-prezioak onartu ditu*

**2. eta 3. orr.:** *Langabeziak graduondoko ikasketak dituzten pertsonen % 8,8ri "soilik" eragiten dio*

**4. orr.:** *EAEko langileen % 31,4 bere prestakuntza-mailatik beherako lanpostuetan dago*

**Asier Aloria, UPV/EHUko Gizarte Kontseiluko buru berria**

## GIZARTE KONTSEILUAREN OSOKO BILKURAK IKASKETA OSAGARRIEN 8 IKASTAROREN MATRIKULA-PREZIOAK ONARTU DITU



Maiatzaren 15ean, Asier Aloria Sánchezek, Kontseiluko buru berriak, Gizarte Kontseiluak Bilbon egin zuen bilera zuzendu zuen. Bilera horretan, Gizarte Kontseiluaren osoko bilkurak ikasketa osagarrien zortzi ikastaroren matrikula-prezioak onartu zituen.

Apirilaren 25ean, Iñigo Urkullu lehendakariak Asier Aloria UPV/

EHUko Gizarte Kontseiluko buru izendatu zuen, Cristina Uriartek, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, egin zuen proposamenari jarraituta. Beraz, Asier Aloriak José Manuel de la Sen ordezkatuko du karguan.

Kontseiluko buru berriak bere aurkezpenean azpimarratu zuen unibertsitatea ingurune sozialera, ekonomikora eta kulturalera hurbil dadin lan egiten jarraitzeko asmoa duela. Eta, bereziki, unibertsitatean eta enpresen artean beharrezkoak diren harremanak errazten lagunduko duela

Asier Aloria, 41 urtekoa, industria-ingeniarria da, Enpresen Antolaketan espezializatua, eta Bilboko Industria Ingeniaritzako Goi Eskolan egin zituen ikasketak. Bere ibilbide profesionalaren hasieran aholkularitzan jardun zuen. Geroago, Confebask konfederakuntzako prestakuntza-sailean lanean hasi zen, eta EAEko eta Europako zenbait proiekturen garapenean eta kudeaketan parte hartu du. Gaur egun, Confebask-eko Prestakuntza Saileko zuzendaria da, baita parte-hartze sozialeko hainbat erakundetako kide ere. Erakunde horietako batzuk honako hauek dira: Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua, Lanbide-ko Administrazio Kontseilua, Hobetuz (2011. eta 2012. urte bitartean fundazioko burua izan zen), Euskadiko Eskola Kontseilua eta Lanbide Heziketako Kontseilu Nagusia.

Onartutako ikastaroak hauek dira:

- *Functional Traits in Ecology.*
- Disekzio anatomikoa: Anatomiaren ikaskuntza hilotzen disekzioaren bidez (2. aldia).
- Ingurumen Zuzenbide orokorra eta berezia.
- Kapital zuritzearen prebentzioa.
- Giza eskubideen aldeko aktibismoa: Giza eskubideen aldeko gizarateak eskura dituen baliabideak.
- Begirada feminista: Datu kuantitatiboaren iturrien azterketa eta adierazlearen sorrera.
- *Emulsion Polymerization Processes* (3. aldia).
- Programa aurreratua nazioarteko praktikan.

## Autonomia-erkidegoen arabera, Euskadi hirugarren mailako prestakuntza duten langileen laneragarritasuna sailkatzeko zerrendako goiko postuetan dago

### LANGABEZIAK GRADUONDOKO IKASKETAK DITUZTEN PERTSONEN % 8,8ri "SOILIK" ERAGITEN DIO

2012. urtearen amaieran, Espainiako estatuko biztanle aktiboen langabezia-tasa % 26,6koa zen, baina graduondoko ikasketak zituzten pertsonen % 8,8 baino ez zegoen langabezian; eta tasa hori bost puntutik behera zegoen goi-mailako prestakuntza zuten langile langabetuen tasarekin alderatuta (% 13,7). Datu horiek oinarri hartuta, txostenean ondorioztatu da graduondoko ikasketak egin dituzten profesionalak % 55 aukera gehiago dutela lana lortzeko, unibertsitate-ikasketak besterik ez duten profesionalekin erkatuta, eta biztanle aktibo guztiakin alderatuz gero, aukerak % 201 handitzen dira. Horixe izan da EAE Business School eskolako Strategic Research Center-ek *Empleabilidad de la Población Cualificada 2013* (Prestakuntza duten biztanleen laneragarritasuna 2013) egindako azterketan atera den ondorio nabarmenetako bat. Txostenean aztertu dute prestakuntzaren eragina biztanle aktiboen lan-baldintzen hobekuntzan, bai Espainiako estatuan, bai Europan.

Ikerlanak erakusten du graduondoko ikasketak dituzten biztanleek sinatutako kontratuen behin-behinekotasuna baxuagoa dela, euren prestakuntza-mailatik beherako lanpostuak lortzeko aukerak txikiagoak direla eta iraupen luzeko langabezia-tasa ere txikiagoa dela. Ildo horretatik, Espainiako estatuko biztanle aktiboen % 13,1ek eta unibertsitate-ikasketak dituzten langileen % 8,4k lanpostuan eskatutako prestakuntza gainditzeko dute, baina ehuneko hori % 5,8raino jaisten da graduondoko ikasketak dituzten langileen kasuan. Iraupen luzeko langabeziak (urtebetetik gorakoak) langabetuen % 67,4ri eragiten die, eta unibertsitate-ikasketak dituzten langabetuen % 59,2ri. Aitzitik, graduondoko ikasketak dituzten pertsonen buruzko datuak aztertuta, tasa hori % 46,4raino jaisten da. Behin-behinekotasunari bagazozkio, Espainiako estatuan sinatzen diren kontratuen % 22,8 behin-behinekoak dira –eta unibertsitate-ikasketak dituzten profesionalak sinatutako kontratuen

### Graduondoko ikasketak dituzten eta ikasketak horiek ez dituzten biztanleen laneragarritasun-mailaren adierazleak duela gutxi izan duten bilakaera (2010-2012ko aldian)

	2010			2011			2012		
	Guztira	Unibertsitate-ikasketak dituzten profesionalak	Graduondoko ikasketak dituzten profesionalak	Guztira	Unibertsitate-ikasketak dituzten profesionalak	Graduondoko ikasketak dituzten profesionalak	Guztira	Unibertsitate-ikasketak dituzten profesionalak	Graduondoko ikasketak dituzten profesionalak
Langabezia-tasa	%20,2	%9,8	%6,7	%22,9	%11,8	%7,6	%26,6	%13,7	%8,8
Iraupen luzeko langabezia-tasa	%63,3	%55,8	%43,2	%65,4	%57,7	%44,6	%67,4	%59,2	%46,4
Azpienplegua	%11,2	%7,1	%5,0	%11,3	%7,2	%5,0	%13,1	%8,4	%5,8
Behin-behinekotasuna	%20,7	%17,6	%15,8	%20,8	%17,7	%15,9	%22,8	%19,9	%18,0
Iraupen laburrekoa	%93,4	%88,3	%74,1	%92,8	%87,7	%73,6	%93,6	%93,4	%75,7

*Iturria:* EAE Strategic Research Center-ek egina, INE Estatistikako Institutu Nazionalen emandako datuak oinarri hartuta

*Oharra:* 2012ko zifrak aurreikuspenak dira

### Laneragarritasun-indizea, autonomia-erkidegoen arabera (2009-2012ko aldian)

	2009	2010	2011	2012	Sailkapena
Katalunia	5,36	5,54	7,8	7,4	1
Madril	6,52	6,52	6,7	7,2	2
Aragoi	6,79	7,95	7,4	7,1	3
<b>EAE</b>	<b>5,89</b>	<b>7,05</b>	<b>6,7</b>	<b>6,7</b>	<b>4</b>
Asturias	6,34	6,79	6,1	5,9	5
Valentziako Erkidegoa	3,39	4,46	5,6	5,7	6
Andaluzia	5,71	5	5,4	5,6	7
Galizia	5,63	4,46	5,3	5,4	8
Balearrak	3,57	4,02	4,9	5	9
Gaztela eta Leon	3,39	3,57	4,6	4,8	10
Nafarroa	5,8	5,36	4,4	4,7	11
Kanariak	5,09	5,36	4,8	4,6	12
Gaztela-Mantxa	5,98	5,63	4,8	4,5	13
Murtzia	2,86	3,84	4,7	4,4	14
Kantabria	4,2	3,39	4,2	4,3	15
Errioxa	4,73	3,39	3,8	4	16
Extremadura	3,75	2,68	2,7	2,8	17

*Iturria:* EAE Business School eskolako Strategic Research Center-ek egina

% 19,9–, baina graduondoko prestakuntza duten profesionalen buruzko datuak aintzat hartuta, ehuneko hori % 18raino jaisten da. Hortaz, zifra horiek adierazten dute graduondoko prestakuntza duten profesionalak behin betiko kontratuak lortzeko aukera gehiago daukatela.

### Euskal Autonomia Erkidegoa, onenen artean

Era berean, txostenean laneragarritasun-indizea autonomia-erkidegoen arabera aztertu dute. Indize hori osatzeko, hainbat aldagai kontuan hartu da: esaterako, prestakuntza duten biztanleen langabezia-tasa, iraupen luzeko langabetuak, autonomia-erkidego bakoitzeko BPGd-aren igoera, lanpostuan eskatutako prestakuntza-maila gainditzeko dute langileen ehunekoak, kontratuen behin-behinekotasuna eta iraupen laburreko kontratuko kopurua (12 hilabetetik beherakoa). Indize horiek konbinatuta, honako zerrenda hau osatu da: Katalunia (7,4), Madril (7,2), Aragoi (7,1), EAE (6,7) eta Asturias (5,9); izan ere, bost autonomia-erkidego horietan jaso dira graduondoko ikasketak dituzten pertsonen laneragarritasunari buruzko daturik onenak. Honako erkidego hauek, ostera, zerrendako azken postuetan daude: Gaztela-Mantxa (4,5), Murtzia (4,4), Kantabria (4,3), Errioxa (4,0) eta Extremadura (2,8).

- **Euskal Autonomia Erkidegoa** zerrendako hurrengo postura igo da, 2012ko sailkapenarekin alderatuta. EAEk dauka graduondoko ikasketak dituzten langileen langabezia-tasa txikienetako bat Espainian; zehazki, % 4,6 da (Estatuko batez bestekoa, ordea, % 8,8 da). Horrez gain, bigarrena da lanpostuan eskatzen den prestakuntza gainditzen duten langileen tasa txikienek ostaturako zerrendan (EAEkoa % 3,7 da).
- **Katalunia** berriro dago lehenengo postuan, eta bertan jaso dira graduondoko ikasketak dituzten pertsonen laneragarritasunari buruzko daturik onenak. Izan ere, prestakuntza duten biztanleen langabezia-tasa oso txikia da (% 5,2), lan-merkatu itzultzeko epea laburragoa da, eta lanpostuak eskatutako prestakuntza gainditzen duten langileen tasa Espainiako tasarik txikienetako bat da (% 4; eta Estatukoa, ordea, % 5,8 da).
- **Madril** laugarren postutik bigarren postura igo da, graduondoko prestakuntza duten langileek sinatutako behin-behineko kontratuen tasa txikia duelako (% 9,1 da, eta Estatuko batez bestekoa % 18); horrez gain, biztanle horien langabezia-tasa ere bertan baxua da (% 6,2, eta Estatuko batez bestekoa, ordea, % 8,8 da). Lanpostuak eskatutako prestakuntza gainditzen duten langileen tasa, % 4, EAEkoa baino zertxobait handiagoa da, eta Kataluniako tasaren parekoa.
- **Aragoi** hirugarren postuan dago, aurreko urtean bezala. Halaber, graduondoko ikasketak dituzten pertsona langabetuen tasa txikienetako bat izaten jarraitzen du (% 3,8). Gainera, autonomia erkidegoak behin betiko kontratu sinatuen kopurua araberako sailkatuz gero, Aragoi zerrendako bigarren postuan dago. Izan ere, behin-behineko kontratuen tasa Aragoi % 12 da, eta zifra hori Madrilen soilik gainditu da.
- **Asturias** bigarren postutik bosgarrenera joan da. Prestakuntza duten pertsona langabetuen tasa batez bestekoaren azpitik dago (% 6); hala eta guztiz, gainerako adierazleek okerrera egin dute.

### LANERAGARRITASUNA EUROPAN

Europako laneragarritasunari erreparatu gero, txostenean azpimarratu da graduondoko prestakuntza duten EBko biztanleen % 5,4 langabezian dagoela, eta zifra hori, aurreko urtekoarekin erkatuta, % 1,89 handitu dela. Langabezia-tasa txikiena duten herrialdeak honako hauek dira: Norvegia (% 1,6), Austria (% 2), Suitza (% 2,3), Alemania (% 2,4) eta Txekiar Errepublikak (% 2,7). Biztanle gaituen langabezia-tasa handiena duten bost herrialdeetako bat Espainia da.

#### Laburbilduz:

- Espainiako estatuan graduondoko prestakuntza duten pertsonen langabezia-tasa % 8,8 da, eta unibertsitate-ikasketak soilik egin dituzten pertsonen langabezia-tasa % 13,7. Estatuko langabezia-tasa gutxira % 26,6 da.
- Autonomia-erkidegoei dagokienez, laneragarritasun-egoerarik onena Katalunian, Madrilen eta Aragoi eskaintzen zaie prestakuntza duten biztanleei.
- Graduondoko prestakuntza duten pertsonen langabezia-tasarik txikiak Galizia, Aragoi eta Kantabria autonomia-erkidegoek dituzte: % 3,6; % 3,8; eta % 4,2, hurrenez hurren.
- Bestalde, prestakuntza duten pertsona langabetuen tasarik handienak Balear Uharteek (% 13,3), Gaztela-Mantxak (% 12,1) eta Kanariar Uharteek (% 11,3) dituzte.
- MBA, masterreko edo graduondoko ikasketak dituzten Europar Batasuneko biztanleen % 94,6k lan egiten du.

- Europar Batasunean, 2012an, graduondoko ikasketak dituzten biztanleen langabezia-tasa % 5,4 izan da; eta bigarren edo goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen langabezia-tasa, ordea, % 9,9.
- 2011. eta 2012. urte bitartean, biztanle gaituen langabezia-tasak % 1,89 egin du gora; eta bigarren edo goi-mailako prestakuntza duten biztanleen, aitzitik, % 5,81.
- Graduondoko prestakuntza duten pertsonen langabezia-tasarik txikiak dituzten Europako herrialdeak Norvegia (% 1,6), Austria (% 2) eta Suitza (% 2,3) dira.

### Okupazio-tasaren aldaketak, ikasketak-mailaren arabera Europar

	Goi-mailako bigarren hezkuntza eta hirugarren mailakoa ez den bigarren mailako hezkuntza	Hirugarren mailako hezkuntza	Aldea
Alemania	%94,6	%97,6	%3,17
Austria	%96,6	%98,0	%1,45
Belgika	%93,7	%96,7	%3,20
Bulgaria	%90,1	%94,7	%5,11
Zipre	%91,3	%93,1	%1,97
Kroazia	%85,1	%91,3	%7,29
Danimarka	%93,7	%94,2	%0,53
Eslovakia	%86,7	%94,7	%9,23
Eslovenia	%91,9	%94,8	%3,16
Espainia	%77,0	%87,7	%13,90
Estonia	%86,8	%91,3	%5,18
Finlandia	%91,7	%96,4	%5,13
Frantzia	%91,4	%94,6	%3,50
Grezia	%80,8	%86,5	%7,05
Hungaria	%89,0	%95,7	%7,53
Irlanda	%82,2	%92,9	%13,02
Islandia	%92,6	%95,3	%2,92
Italia	%92,2	%94,7	%2,71
Letonia	%81,4	%91,9	%12,90
Lituania	%80,6	%94,6	%17,37
Luxenburgo	%96,4	%95,7	-%0,73
Mazedonia	%69,5	%75,3	%8,35
Malta	%94,4	Daturik gabe	Daturik gabe
Norvegia	%97,2	%98,4	%1,23
Herbehereak	%96,1	%97,1	%1,04
Polonia	%89,8	%94,6	%5,35
Portugal	%87,2	%91,6	%5,05
Erresuma Batua	%91,1	%95,5	%4,83
Txekiar Errepublikak	%93,4	%97,3	%4,18
Errumania	%91,8	%95,3	%3,81
Suedia	%93,1	%96,0	%3,11
Suitza	%96,7	%97,7	%1,03
Turkia	%89,1	%91,8	%3,03
Europar Batasuna	%90,9	%94,4	%3,85


*Iturria: EAE Strategic Research Center-ek egina, Eurostat-ek emandako datuak oinarri hartuta*

**Oharra:** Adierazitako 2012ko zifrak aurreikuspenak dira

Osoko bilkurak bilera berean aurrekontu-eragiketa batzuk onartu zituen, eta errektoreak **Zabalduz 2012** programaren emaitzak jakinarazi zituen. Programak enpresen eta erakundearen arazoak konpontzea xede zuten doktore-tesiak laguntzeko antolatzen da. Honako hauek programaren helburuetako batzuk dira:

- UPV/EHUren eta ingurune produktiboaren eta sozialaren arteko harremanak indartzea eta estuztea.
- Arlo pribatuan eta publikoan lankidetzako ikerketaren garapena bultzatzea.
- Enpresa- eta gizarte-testuinguruan lanpostu gaituak sortzen laguntzea.
- Doktore-maila duten pertsonen kopurua areagotzea, eta haiei ingurune sozialean eta ekonomikoan sartzen laguntzea. Asmoa doktoreek I+G+B-ko proiektuak garatzea da, eta, sorkuntza etorkizunean arrakastaz aurrera egiteko ezinbesteko faktorea denez, doktoreak enpresetako funtsezko pertsonatzat hartzea.
- Enpresen garapena eta berrikuntza laguntzea, ikertzaileen gaitasuna enpresetara transferituz.
- Adimena bereganatzea eta enpresen arteko **lehiakortasuna** laguntzea.

### Onuradun erakundearen arabeko banaketa



## EAEko LANGILEEN % 31,4 BERE PRESTAKUNTZA-MAILATIK BEHERAKO LANPOSTUETAN DAGO


Beste autonomia-erkidegoekin alderatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak ditu lanpostuan eskatutako prestakuntza gainditzen duten langile-tasari handiena eta eskatutako prestakuntzara iristen ez diren langile-tasari txikiena. Datu horiek jaso dira AFI-ASEMPLEO-k Lan Merkatuaren gainean egin duen azken aurrerapen-txostenean, 2013ko hiru hilekoari buruzkoan. Izan ere, EAEko langileen % 31,4k lanposturako beharrezkoa den baino prestakuntza zabalagoa du, eta arazo horrek 16 eta 34 urte bitartekoei gehien eragiten die ostalaritzan, zerbitzuetan eta azpiegiturak eta makinak muntatzeko sektoreetan, batik bat.

Txostenaren ondorioetan azpimarratu da gainprestakuntzak gazteei gehien eragiteak erakusten duela gazteek lan-merkatura iristeko duten zailtasuna; eta zailtasun horrengatik, hain zuzen ere, euren ikasketa-mailatik behera dauden lanpostuak onartu behar dituzte. EAE da langabezia-tasa txikiena duen autonomia

erkidegoa; beraz, joera hori langabezia-tasa murrizteko bide bat izan dela pentsa daiteke, soldataren eta lanbide-gaitasunaren ikuspegitik, langilearen devaluazioaren kontura izan arren.

Aitzitik, eskatutako prestakuntzara ez iristea 55 urte bitarteko langileei maizago gertatzen zaie, eta euren kasuan eskarmentuak du garrantzirik handiena, beste faktore batzuen gaineratik. Euskadin, langileen % 10,8 ez da eskatutako prestakuntza-mailara iristen, baina ehuneko hori Estatuko bigarren txikiena da, Madridilgo tasaren atzetik. Langile horiek, batez ere, industrian eta eraikuntzan egiten dute lan.

Azterketaren arabera, krisia gertatu aurreko urteen aldean, gainprestakuntza duten langileen kopurua autonomia-erkidego guztietan igo da, eta behar besteko prestakuntza ez izateko joerak behera egin du. Hori horrela, aurtengo lehenengo hiru hilekoan langileen % 41,1 bere prestakuntzarekin bat ez zetozen lanpostuetan zegoen.



### Lanpostuan eskatutako prestakuntza gainditzen duten eta prestakuntza horretara iristen ez diren Espainiako biztanleak, adinaren arabera (ehunekoa, guztira, talde bakoitzean) 1T13

